

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ENTZIAKO PARTZUERGO NAGUSIA

Lankidetzaz hitzarmena, Entziako Partzuergo Nagusiaren eta Gaztela eta Leongo Centro de Servicios y Promoción Forestal y de su Industria Fundazioaren (Cesefor) artekoa, Life LIFE22-CCM-ES-LIFE HFH proiektuaren esparruan, 609 onura publikoko mendiko (Araba) zenbait unada erakusgarritan basogintza moldagarriko kudeaketa (Selvinet) ezartzeko baldintzak arautzeko

Iragarki honen bidez, argitara ematen da Entziako Partzuergo Nagusiak eta Cesefor Fundazioak sinatutako lankidetzaz hitzarmena, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Honela dio, hitzez hitz:

Agurain, 2025eko urtarrilaren 28a.

Bildutakoak

Alde batetik, Pablo Sabín Galán, Gaztela eta Leongo Centro de Servicios y Promoción Forestal y de su Industria Fundazioaren (aurrerantzean, Cesefor Fundazioa) gerentea (IFK: G-42164020). Fundazio izaerako pertsona juridikoa da, irabazteko xederik gabekoa, eta fundazio pribatu moduan eratu zen 2001eko azaroaren 16ko eskrituraren bidez, Gonzalo López Escribano notarioaren aurrean (protokolo zenbakia: 2.017), eta Gaztela eta Leongo Fundazioen Erregistroan inskribatu zen (zenbakia: ECD/642). Gerenteak fundazioaren izenean eta hura ordezkatzuz jardun du, Sorian, 2018ko maiatzaren 29an Gaztela eta Leongo Elkargoko José-Manuel Benítez Bernabé notarioak egiletsitako 1.048 zenbakiko eskritura publikoaren bidez. Eskritura horren bidez, publiko egin zen gerentearen izendapena.

Bestetik, Raúl López de Uralde Baltasar, Entziako Partzuergo Nagusiaren izenean eta hura ordezkatzuz (IFK: P0100399E; helbidea: Zapatarri kalea 15, 01200 Agurain, Araba) –aurrerantzean, interesduna–, entitate horretako presidentea den aldetik, haren estatutuen 10. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Esku hartzen dute

Bi aldeek bere entitatearen izenean eta haien legezko ordezkari gisa jarduten dute, adierazitako karguen arabera, eta lankidetzaz hitzarmen hau formalizatzeko eta sinatzeko behar diren gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna aitortzen dizkiote elkarri.

Adierazten dute

I. Cesefor Fundazioa LIFE22-CCM-ES-LIFE HFH proiektua koordinatzen ari da. Proiektu horren helburua da naturatik hurbil dagoen kudeaketan oinarritutako basogintza eredu bat garatzea, Espainiako pagadiak klima aldaketa arintzeko duten gaitasuna handitzeko. Basogintzan lortutako pago zura pago zur berritzailearen 2 lerro berri garatzeko erabiliko da, zur laminatu kolatua (ZLK) eta zur kontralaminatua (ZKL), eta «Hayabitat» eraikuntza sistema berria garatzeko. Proiektua amaitzeko, pago zurezko eraikin erakusgarria eraikiko da Nafarroan.

Proiektuaren osagarri gisa, «T.3.2 Basogintzako unada erakusgarrien sarea» ekintzan, proiektuaren baso ereduarekin pagadiak kudeatzeko unada erakusgarrien sare bat ezarri nahi da.

Bestalde, Ceseforrek basogintzako unada erakusgarrien sare bat (Selvinet) kudeatzen du, eta hainbat proiektutako unadek osatzen dute.

Horregatik, Entziako Partzuergoari laguntza eskatzen dio proiektuan eta Ceseforrekin lankidetzan aritzeko, atxikimendu erabaki baten bidez, bere sarean bi unada erakusgarri sartuta: Iparraldeko unada: 7e, 7f, 7g, 8a eta 8b (23,05ha) antolamendu unadak. Hegoaldeko unada: 10c, 11f, 12a, 12b, 12c, 12e, 12g, 12h, 13a, 13b, 13c, 13d, 13e, 13f, 13g, 13h, 14b, 14c, 14d (48,44 ha) antolamendu unadak.

II. Cesefor izaera pribatuko fundazioa da, nortasun juridiko propioa eta jarduteko gaitasun juridiko osoa dituena, estatutuen 3. artikuluan xedatutakoaren arabera. 5. artikulua honako helburu eta jarduera hauek ezartzen ditu:

- Mendiak, nekazaritzako eta artzaintzako lurrak eta horiek gordetzen duten ondarea konserbatzea.
- Mendietako baliabide naturalak hobeto erabiltzea.
- Baso baliabideen aprobetxamenduan eta gozamenean aberastasuna eta enplegua sortzea.
- Basogintza sektoreko balio kateetan esku hartzen duten eragile guztien lehiakortasuna eta garapen jasangarria hobetzea.
- Baso baliabideak eta horien kalitatea sustatzea.
- Berrikuntza, ikerketa eta garapen sektoriala.
- Eragileen baliabideak eta haien balio kateak hobeto ezagutzea.
- Landa garapena eta eragile guztiekiko lankidetzeta, bai Gaztela eta Leonen, bai beste lurralde batzuetan, baita nazioartean ere.
- Landa ingurunearen eta hiri ingurunearen arteko loturak estutzea, hezkuntza eta baterako jarduerak garatzea.
- Klima aldaketaren aurka borrokatzea.
- Giza komunitate guztiak garatzeko eta pobrezia gainditzeko nazioarteko lankidetzeta.

Estatutuen 10. artikuluan xedatutakoaren arabera, Cesefor patronatu batek zuzentzen du eta fundazioaren gobernu, ordezkartza eta administrazio organoa da, eta hari dagokio fundazioaren helburuak betetzea eta fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak arduraz administratzea, estatutu hauetan eta aplikatu beharreko xedapen orokorretan aurreikusitako baldintzetan, eta, horretarako, eskumen eta eskuduntza guztiak izango ditu... /...

Patronatu horretan sektoreko eta landa inguruneke eragile guztiak daude ordezkartuta, mendien jabeetatik hasi eta bertan ordezkartuta handiena duten enpresa erakundeetaraino. 2018az geroztik, Cesefor Fundazioaren patronatua entitate hauen ordezkariak osatzen dute: Soriako Diputazioa, Valladolideko Unibertsitatea eta Gaztela eta Leongo Baso Elkarrean Federazioa (FAFCYLE). Gainera, patronatuaren bileretara joaten dira Gaztela eta Leongo Juntako Sustapen eta Ingurumen Kontseilaritza, Natura Ondare eta Baso Politikako Zuzendaritza Nagusiaren bidez, eta Gaztela eta Leongo Juntako Enpresa Lehiakortasuneko Institutua (ICE), Ceseforrek egiten dituen jarduerari laguntza estrategikoa ematen dietenak.

III. Entziako Partzuergo Nagusia toki erakunde bat da, Toki Erakundearen Foru Erregistroan 208 zenbakiarekin inskribatuta dagoena; Arabako Foru Aldundiko Mendien Katalogoko 609 zenbakiko Onura Publikoko Mendiaren titularrak da; eta toki erakundea den aldetik, bere estatutuen 2. artikuluan xedatutakoaren arabera, bere ondarea osatzen duten industria ondasun, eskubide, ekintza eta ustiatzeen jabea da, nortasun eta gaitasun juridiko propioarekin, eta bere helburu nagusia ondasunak administratzea, ustiatzea eta erabiltzea da, bai eta legeriak edo beste administrazio publiko batzuek agindu diezazkioketen eta Partzuergo Nagusiak onartzen dituen zerbitzu publikoak kudeatzea ere.

Administrazio publiko batek sinatutako hitzarmen hau egitea gaitzen duten lege xedapenak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 47. artikuluan aurreikusitakoan artean jasota daude.

IV. Entziako Partzuergoaren eta Cesefor Fundazioaren artean hitzarmen bat egiteko beharra eta aukera Entzia Life Haya proiektuan sartzeak dakarren interes handiak eragiten du. Proiektu hori pagadiak klima aldaketara egokitzera eta Espainiako 4 eskualdetako 10 unada erakusgarritan biodibertsitatea sustatzera bideratuta dago, eta Entzia da Euskal Autonomia Erkidegoa ordezkatzeko duena.

Entzia ingurumen balio nabarmenak dituen mendi eremu bat da, eta 2.300 hektareatik gorako pagadi masa du, hau da, azaleraren ehuneko 72a. Horren ondorioz, Natura 2000 Sareko Naturagune Babestu izendatu zuten, eta, urriaren 6ko 188/2015 Dekretuaren bidez, ES2110022 Entzia KBE Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu zuten. Pagadi horiek baso ustiapenaren eraginpean daude, mozketak komertzialen bidez, unadak ondoz ondo bakantzeko metodoari jarraituz.¹

Cesefor Fundazioak basogintza sektorearen garapen integralari laguntzen dio, jasangarritasuna, berrikuntza eta ikerketa sustatuz ekoizpen eremu guztietan, ekosistemak eta biodibertsitatea kontserbatzearen aldeko apustua eginez.

Honako hauek dira Cesefor Fundazioaren helburuak: baso baliabideen kudeaketa eta aprobetxamendua hobetzea; industria sarearen lehiakortasuna eta garapena hobetzea; baso produktuen industrializazio jasangarriaren maila handitzea; basogintzaren eta bere industriaren zerbitzu zentroa izatea, hura garatzen lagunduko duten neurriak aztertze eta ezartzeko; eta landa ingurunean kalitatezko enpleguaren sorrera bultzatzea.

Ceseforrek proposatzen duen metodoa estaldura jarraituko basogintza da, zuhaitz indibidua-lera bideratua, egitura eta espezie dibertsitate handiagoa, birsorkuntza naturala eta ingurunean inpaktu txikiagoa sustatuz.

Klima aldaketaren egungo egoeran, beharrezkoa da baso kudeaketa bat egitea, ingurunean ahalik eta eragin txikiena izango duten eta dibertsitate handiagoa sustatuko duten aprobetxamendu moduak sustatuko dituen, masek erresilientzia handiagoz aurre egin ahal izan diezaieten klima erronkei.

Bestalde, beharrezkoa da balio handiagoa lortzea egurretarako eraldatzen ari diren tarteko produktuetan; horrela, segmentu horretatik lortutako errentak handituko lirarteke.

Ildo horretan, Eusko Jaurlaritza bezalako administrazio publikoak laguntzak ematen ari dira basogintzako produktuak eraldatzeko eta/edo merkaturatzeko inbertsio handietarako (Handitu Egurra 2025 programa).

Euskadin 3.514 pertsona inguruk egiten dute lan basogintza industrian, eta landa garapenaren elementu garrantzitsua da. EAEko zuraren industriak bere produktuen kalitate, sofistikazio eta eraldaketa mailarik altuenak lortu nahi ditu, eta, horretarako, merkaturatzen ari diren segmentu askotara iritsi nahi du.

Horretarako, berrikuntza izango da bere indar gidaria, alderdi guztietan: teknologikoan, produktuetakoan, eta abar. Industria hori balio katearen fase landuenera ekoizpen gaitasunak garatzera bideratuta dago. Balio kate horrek zeregin estrategikoa du euskal ekonomian, eta trazio efektua du, BPGd-an eta sortutako enpleguan duen garrantziagatik; izan ere, berrikuntzan gero eta inbertsio handiagoa egiten ari da.

1 188/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Entzia Kontserbazio Bereziko Eremu (ES2110022) izendatzen duena; eta 286/2015 Erabakia, ekainaren 2ko Diputatuen Kontseiluarena, zeinaren bidez behin betiko onesten baita ES2110022-Entzia BGLko kontserbazio onerako eta habitaten narriadura eta espezieen gaineko aldaketak saihesteko gidalerro eta kudeaketa neurrien dokumentua.

Zuraren plan estrategiko berriak indartu egiten du enpresentzako laguntza, finantza tresnen eta beste jarduera ildo batzuen bidez. Horien helburua da inbertsioak sustatzea ekoizpen eta teknologia aktibo berrietan, eta teknologia berri eraginkorrako sartzeko basogintzako produktuen eraldaketa eta merkaturatzea hobetzeko. Dibertsifikazioa eta aukera berrien sorrera sustatzea da helburua.

Adierazitako arrazoi horiek guztiak direla eta, beharrezkotzat eta egokituz jotzen da hitzarmen hau garatzea eskatutako unada erakusgarrietan aipatutako basogintza sistema abian jartzeko.

Horregatik, eta aipatutako aurrekariak oinarri hartuta, aldeek erabaki dute administrazio lan-kidetzarako hitzarmen hau sinatzea. Hona hemen hitzarmenaren klausulak:

KLAUSULAK

Lehenengoa.- Xedea

Hitzarmen honen xedea da Gaztela eta Leongo Centro de Servicios y Promoción Forestal y de su Industria (aurrerantzean, Cesefor) fundazioak eta Entziako Partzuergo Nagusiak LIFE22-CCM-ES-LIFE HFH proiektuaren esparruan beren gain hartzen dituzten baldintzak eta konpromisoak ezartzea masak aztertzeko. Masa horietan, estaldura jarraituko basogintza aplikatuko da, zuhaitz indibidualari begira, masaren egitura irregularra dagoen edo horretara biltzeko joera dagoen zuhaitzetan. Proiektu horren helburua da naturatik hurbil dagoen kudeaketan oinarritutako basogintza eredu bat garatzea, pagadiak klima aldaketa arintzeko duten gaitasuna handitzeko.

Bigarrena.- Aldeek beren gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak

1. Alde batetik, Entziako Partzuergo Nagusia, hitzarmen honen xede diren unadak dauden mendiaren entitate titularra den aldetik:

a. Cesefor fundazioarekin elkarlanean arituko da, proiektuan hitzarmen honen eranskin kartografikoetan ageri diren honako antolamendu unada hauek sartuta, basogintza moldagarriko kudeaketa egin dadin (Selvinet):

- Titulartasuna: Entziako Partzuergo (Araba).
- Mendia: Onura publikoko 609 mendia.
- Iparraldeko area, «Bigate-Majada de Egino» dermioa: 7e, 7f, 7g, 8a eta 8b (23,05 hektarea) antolamendu unadek osatzen dute.
- Hegoaldeko area, «Monte Alto» dermioa: 10c, 11f, 12a, 12b, 12c, 12e, 12g, 12h, 13a, 13b, 13c, 13d, 13e, 13f, 13g, 13h, 14b, 14c, 14d (48,44 hektarea) antolamendu unadek osatzen dute.
- Azalera, guztira: 71,49 hektarea.
- Sarean integratuta (SELVINET), 8. eta 9. zenbakiekin.

Unada erakusgarriak eta lurzatien kokapena beren interes esperimental eta erakusgarri-erengatik aukeratzeko dira.

b. Onartzen du, hitzarmena indarrean dagoen bitartean, jarraian adierazitako unada erakusgarriak baso erreferentziako sarean (selvinet) mantentzea, eta, beraz, bertan diseinatutako lurzatiak ere bai.

c. Ceseforreko kideei edo baimendutako baso zerbitzuetako teknikariei lurzatiaren sartzeko konpromisoa hartzen du, esperimentaziorako beharrezkoak diren neurketak egiteko.

d. Era berean, konpromisoa hartzen du Ceseforrek eta baimendutako baso zerbitzuek urtean gutxienez bi bilera egiteko lurzatiaren.

e. Onartzen du bere lursailean egindako neurketak argitalpen profesionalen edo dibulgaziozkoen xede izatea.

f. Hitzarmen honetan oinarrituta egiten diren jarduerak aipatzen dituzten komunikazio eta argitalpen guztietan, bi aldeei aitortu beharko zaizkie, eta, nolana ere, egileek aipatuak izateko dituzten eskubideak errespetatu beharko dira.

g. Basolanek Entziako Partzuergoaren ardura izaten jarraituko dute.

h. Lurzatian egiten den kudeaketa Partzuergoaren ekimena izango da erabat, betiere lortu nahi den helburua aldatzen ez bada, hau da, baso garai irregular gisa tratatzea, banakako zuhaitzera bideratutako estaldura jarraituko basogintzaren irizpideen arabera.

i. Ikuskapen lanak egiteko unadetan sartzeko eskubidea izango du.

2. Bestalde, Cesefor:

a. Aztertu beharreko unada mugatzeaz eta azterketarako beharrezko neurri guztiak hartzeaz arduratuko da.

b. Lurzatien jarraipena hitzarmen honetan adostutakoaren arabera egiteko konpromisoa hartzen du.

c. Neurketa horiek Partzuergoak inolako kosturik izan gabe egingo dira, Cesefor eta Partzuergoaren artean akordio berezirik egon ezean.

d. Ceseforrek hartutako neurriek Entziako Partzuergoak egindako basogintza erregistratuko dute, hartan eraginik izan gabe.

e. Konpromisoa hartzen du unada kudeatzeko ekimena Entziako Partzuergoari uzteko.

f. Proiektu horri buruz eskatzen dion dokumentazio guztia emango dio Entziako Partzuergoari, eta egiten diren dokumentu erreferentzietan mendiaren titulartasuna agertu beharko da, bai eta horretan lagundu izana ere.

g. Egiten diren lanak hitzarmen honetan jasotako helburuekin eta jarduerekin bat datozela zainduko du.

h. Hala badagokio, Entziako Partzuergoari eskatu beharko dio ezarritako azterketa aldia luzatzeko; nolana ere, Batzar Orokorraren aldeko erabakia beharko da.

Hirugarrena.- Zuhaitz indibidualera bideratutako estaldura jarraituko basogintza definitzen duten irizpideak

Zuhaitz indibidualera bideratutako estaldura jarraituko basogintza da intentsitate txikiko perturbazio prozesuak imitatzen dituzten baso tekniken aplikazioan oinarritzen dena. Basogintza pisu gutxiko mozketen bidez (zuhaitz indibidualak edo talde txikiak) eta urte gutxiko aldizkako txandakatzeen bidez garatzen da, orientazio ekonomiko eta produktiboaren eskemari jarraiki, eta klima aldaketara egokitzea eta kudeaketa unitatean balio ekologikoa kontserbatu edo etengabe hobetzea txertatuz.

Helburu izakinak ekoizpen ahalmena ahalik eta gehien aprobetxatzeko modukoak izango dira, eta, era berean, basoan behar adina berritze prozesu egotea ahalbidetuko dute, basoak antzeko baldintzetan iraun dezan.

Basoaren hazkundeak zehaztuko du errotazio aldia, eta erauzitako hektarea bakoitzeko bolumenari dagokionez mozketak errentagarri bat egitea ahalbidetuko duen gutxienekoa izango da.

Diametro taldeen araberako banaketaren helburua izango da kapitala salmenta optimotik hurbilen dauden dimentsioetan kontzentratzea (normalean, zur lodiak), baina banaketa orekatu batekin, errelebo iraunkorra gerta dadin.

Zuhaitz bakoitzaren gainean mozketak irizpideak aplikatzea, egungo edo etorkizuneko balio ekonomiko eta ekologikoaren arabera (neurri txikiagoan, beste balio batzuk ere ebaluatzen dira, hala nola babes balioa, hezkuntza balioa edo kultura balioa).

Mozketen seinaleztapen aditua egingo da irizpide horien arabera.

Laugarrena.- Aldatzeko araubidea

1. Hitzarmen honen edukia alde sinatzaileetako batek eskatuta aldatu ahal izango da, bestearen adostasunarekin, edukia hobetzeko interes orokorren arabera.
2. Horretarako, alde sinatzaileen berariazko eta aho bateko adostasuna beharko da, eta aldaketa eranskin gisa jasoko da hitzarmenean.
3. Alde sinatzaileek berariaz eta berehala jakinarazi beharko diote elkarri hitzarmen honen xedea, izaera edo baldintzak alda ditzakeen edozein gorabehera, eta Jarraipen Batzordeari jakinaraziko diote.

Bosgarrena.- Indarraldia

1. Hitzarmenak lau urteko iraupena izango du.
2. Dena dela, aurreko apartatuan ezarritako epea amaitu aurretik, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo azkentzea.
3. Hitzarmena gutxienez 2 urte igaro ondoren deuseztatu ahal izango da, urteko iraungitze data baino 6 hilabete lehenago gutxienez beste aldeari bidalitako gutun ziurtatuaren bidez.

Seigarrena.- Azkentzea

1. Hitzarmen hau azkenduko da haren xede diren jarduketak betetzen direnean edo suntsiarazteko arrazoi hauetakoren bat sortzen denean:
 - a) Indarraldia amaitzea hitzarmenaren luzapena erabaki gabe.
 - b) Alde sinatzaileek hitzarmena azkentzeko akordioen bat hartzea indarraldia amaitu aurreko edozein momentutan.
 - c) Alde sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea.
 - d) Hitzarmena deuseza dela adierazten duen ebazpen judizial irmoa egotea.
 - e) Legerian aurreikusitako beste edozein arrazoiengatik.
2. Nolanahi ere, hitzarmena aldeetako baten borondatez ere azkendu ahal izango da, baina horretarako ezinbestekoa da idatziz eskatzea indarraldia amaitu baino hilabete lehenago.
3. Hitzarmen hau azkentzeak hitzarmena likidatzea ekarriko du, alde sinatzaile bakoitzaren betebeharrak eta konpromisoak zehazteko. Horretarako, Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 52. artikuluan xedatutakoa bete beharko da.
4. Baldin eta hitzarmena azkentzeko arrazoietakoa bat gertatzen bada eta artean jarduketaren bat egiten ari bada, sinatzaileek jarduketa batzuekin amaitu arte jarraitzea adostu ahal izango dute, ezarritako Jarraipen Batzordeak proposatu ondoren. Hori eginez gero, epealdi luzaezina ezarriko dute jarduketa horiek amaitzeko, eta hori igarotakoan beren likidazioa egin beharko da aurreko idatz zatian ezartzen den moduan.
5. Alde sinatzaileetako batek uste badu beste aldeak ez dituela bete hitzarmen honen bidez hartutako betebeharrak edo konpromisoak, alde ez-betetzailerari eta Jarraipen Batzordeari jakinarazi beharko die, desadostasunen eta asmoen berri modu arrazoituan azaltzen duen idatziaren bidez.
6. Jarraipen Batzordeko presidenteak sortu den gatazkaren berri emango die batzordeko gainerako kideei, eta behin ustezko ez-betetzaileraren entzunaldi eta kontraesan izapidea beteta, ebazpena emango du batzordearen baitan. Ebazpena kideen gehiengoak onetsita emango da.

Zazpigarrena.- Hitzarmenaren izaera eta jurisdikzio eskuduna

1. Hitzarmen honek administrazio izaera du, eta haren interpretazioa eta garapena Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 3., 47. eta hurrengo artikuluetan eta aplikatu beharreko gainerako legerian eta araudian ezarritakoaren arabera arautuko da.

2. Hitzarmen honen interpretazioaren, aldaketaren, suntsiarazpenaren eta ondorioen inguruan sor daitezkeen eztabaidak zortzigarren klausulan aipatzen den Jarraipen Batzordearen esku utziko dira ebazteko, eta judizioz kanpoko akordio batera iristeko adiskidetze modu posible guztiak agortuko dira, hargatik eragotzi gabe jurisdikzio eskudunaren mende jartzea. Hori ezin bada egin, administrazioarekiko auzien jurisdikzio ordenako organoek edukiko dute auzia ebazteko eskumena.

Zortzigarrena.- Jarraipen Batzordea

1. Jarraipen batzorde bat izendatuko da, alde sinatzaileen arteko lankidetzaz errazteko eta hitzarmen hau interpretatzean eta gauzatzean sortzen diren arazoak konpontzeko, bai eta hartutako konpromisoak betetzearen jarraipena eta kontrola egiteko ere.

2. Jarraipen Batzordea honako kide hauek osatuko dute:

a. Entziako Partzuergo Nagusiaren aldetik: Entziako Partzuergoko presidentea –Jarraipen Batzordeko presidentea izango da– edo hark eskuordetutako pertsona; eta entitate horretako beste ordezkari bat, hark izendatua.

b. Ceseforren aldetik: fundazio horren kudeaketaz arduratuko den pertsona –Jarraipen Batzordearen presidenteordea izango da– edo hark eskuordetutako pertsona; eta fundazioak izendatutako beste kide tekniko bat.

3. Honako hauek dira Jarraipen Batzordeko presidentearen berezko egitekoak:

a. Jarraipen Batzordeak egiten dituen ohiko eta ezohiko bilkuren deialdia agintzea.

b. Jarraipen Batzordearen erabakiak betearaztea eta hartatik eratorritako xedapenak betetzen direla zaintzea.

c. Bilerak zuzentzea eta moderatzea.

d. Jarraipen Batzordeak esleitzen dizkion gainerako eginkizun guztiak.

4. Jarraipen Batzordeak gutxienez urtean behin egingo ditu bilerak. Nolanahi ere, horrez gainera, ezohiko bilerak egin ahal izango ditu alde batek eskatuta.

5. Urteko ohiko bileran, unada erakusgarrien eremuen azterketan egindako aurrerapenen berri emango da, baita beste xehetasun interesgarri batzuen berri ere, hala nola sortutako arazoak, proposamenak eta gainerako gai batzuk.

6. Horren berri izateko, Jarraipen Batzordeak Entziako Partzuergoko Batzar Orokorrari egindako bileren berri emango dio.

7. Ekitaldi bakoitzean, «Urteko jarduera memoria» egingo da, eta, bertan, urte horretan zehar egindako azterlanen aurrerapena jasoko da, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita.

Bederatzigarrena.- Datu pertsonalen konfidentziasunari eta babesari buruzko klausula

1. Entziako Partzuergoak konpromisoa hartzen du Ceseforrek bidaltzen dizkion eta hitzarmen honen xede den kudeaketaren jarraipen metodoaren elementuak hirugarrenei ez zabaltzeko eta ez jakinarazteko, bereziki metodoa hobetzen dutenak.

2. Betebehar hori Partzuergoari zein bere izenean basoa kudeatzen duen edozein pertsonari aplikatzen zaio, eta metodo horri buruzko informazioa, eta, zehazki, haren hobekuntzei buruzkoa, Ceseforren ekimenez publikoa izatera igarotzen denean soilik etengo da.

3. Bi aldeek konpromisoa hartzen dute unada erakusgarrien barruko jarraipen lurzatieen kokapena ez zabaltzeko, unadei aplikatutako basogintza ez baldintzatzeko eta hirugarrenek egin ditzaketen jarduketak saihesteko.

4. Alde sinatzaileek konpromisoa hartzen dute Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta hura aplikatu eta garatzeko gainerako araudian xedatutakoa betetzeko.

Hamargarrena.- Erantzukizuna

1. Ceseforrek ez du Entziako Partzuergoa lurzatiean egindako neurketen ondorioz gerta daitezkeen kalteen erantzule egingo.

2. Ezinbestezko arrazoiak direla eta lurzatiea suntsitzen bada, aldeek ez dute inolako kalte ordainik ordaindu beharrik izango, eta ez dute beren erantzukizunen gaineko konpromisorik hartuko.

3. Era berean, Entziako Partzuergoak uko egiten dio egindako esperimientuen ondorioz gozamena oztopatzeagatik kalte ordaina jasotzeko edozein eskubideri. Hala ere, mendien aprobetxamenduen eskubide guztiak eta jabetza osoa gordetzen ditu.

Onarpen eta adostasun gisa, aldeek hitzarmen honen bina ale sinatu dituzte, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

Agurain, 2025eko otsailaren 6a

Entziako Partzuergoko presidentea
RAÚL LÓPEZ DE URALDE BALTASAR